BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1199

EBAZPENA, 2012ko otsailaren 15ekoa, Lurralde Plangintzaren eta Uren sailburuordearena; honen bidez, 2012. urterako udal-mapa paperean egiteko diru-laguntzak ematea ebazten eta argitaratzen da.

GERTAKARIAK

2011ko azaroaren 11n, 214 zenbakidun EHAAn argitaratutako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2011ko urriaren 28ko Aginduaren bidez, udal-mapak paperean egiteko diru-laguntza ematea arautzen da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Organo honek eskatutako diru-laguntzak onartzeko edo ukatzeko eskumena dauka, 2011ko urriaren 28ko Aginduaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Proposatutako diru-laguntzen kopurua Agindu arautzailearen 5. artikuluaren arabera kalkulatu da; betiere, artikulu horretan bildutako formulak erabili dira, eman beharreko diru-laguntzen gehienezko kopurua kalkulatzeko.

3.– Aipatutako Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, Agindu horretako 6. artikuluan ezarritako esleipen-irizpideak ikusita, eta kasurako eratutako balorazio-epaimahaiak egindako emateko proposamena aztertu ondoren,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean aipatzen diren udalei udal-mapak paperean egiteko diru-laguntzak ematea.

Bigarrena.– II. eranskinean jasotako diru-laguntzak atzera botatzea, bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Diru-laguntzei dagokien lanetako gehienezko epeak aipatuta daude 2011ko urriaren 28ko Aginduaren 8.2 artikuluan.

Laugarrena.– Diru-laguntzaren ordainketa Aginduaren 9. artikuluan ezartzen diren epe eta baldintzetan egitea.

Bosgarrena.– Ebazpena esleipendun bakoitzari berariaz jakinarazi, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Administrazio-bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburu andreari, ebazpen hau jakinarazpen biharamunetik, hilabeteko epearen barruan, hori guztia Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114 eta 115 artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 15a.

Lurralde Plangintzaren eta Uren sailburuordea,
IGNACIO ACHUCARRO ARRUABARRENA.

I. ERANSKINA

Mapa toponimikoak paperean egiteko diru-laguntza jaso duten erakundeen zerrenda.

Erakunde eskatzailea	Azalera (km²)	Zenbatekoa (€)
Altzaga	2,50	9.203,33
Amorebieta-Etxano	58,50	10.077,66
Berantevilla	35,70	9.378,20
Arabako Errioxako Urkidetza	192,90	11.044,00
Kantauriko Urkidetza	302,40	11.044,00
Aiarako eskualdea	331,93	11.044,00
Durango	10,90	9.203,33
Elantxobe	1,90	9.203,33
Iruña Oka	53,30	9.918,13
Ispaster	22,60	9.203,33
Kuartango	84,40	10.872,21
Lagrán	45,60	9.681,91
Lanestosa	1,30	9.203,33
Larrabetzu	21,40	9.203,33
Mallabia	23,40	9.203,33
Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea	71,00	10.461,12
Markina-Xemein	45,50	9.678,83
Muskiz	20,80	9.203,33
Erriberagoitia	119,80	11.044,00
Urduliz	7,80	9.203,33
Zalla	30,80	9.227,87
Zambrana	39,50	9.494,77
Zamudio	18,10	9.203,33
	Guztira	225.000,00

II. ERANSKINA

Diru-laguntza jasoko ez duten erakundeen zerrenda.

Erakunde eskatzailea	Diru-laguntza ukatzeko arrazoia	Artikulua
Azpeitia	Dirua amaituta	6.3
Hondarribia	Epez kanpoko eskaera	4.1
Lasarte-Oria	Dirua amaituta	6.3
Legazpi	Epez kanpoko eskaera	4.1